

IKASTARO ESPEZIALIZATUA
TOKIKO GIZA GARAPENA

IRAKASKUNTZAKO GIDA

IRAKASGAIA

**Tokiko giza garapena generoko zuzentasunetik:
eraikitzen ari den prozesua**

Irakasleak: Yolanda Jubeto eta Mertxe Larrañaga



Yolanda Jubeto Ruíz

Ekonomian doktorea, Euskal Herriko Unibertsitateko Ekonomia Aplikatua I Saileko irakaslea eta Hegoa Institutuko ikertzailea. Masterretan ere irakasten dut, hain zuzen, hauetan: Ikasketa Feministak eta Generokoak, Hegoaren Garapena eta Lankidetzak masterra, eta UPV/EHUK beste erakunde batzuekin lankidetzan duen Ekonomia Soziala eta Solidarioa masterra. Horrez gain, REASekin aritzen naiz elkarlanean, generoko

taldean, eta aurrekontuei buruzko politika publikoetan genero-ikuspegia sartzearekin zerikusia duten beste ikerketa-proiektu batzuetan ere bai, Mertxe Larrañagarekin batera.

Mertxe Larrañaga Sarriegi

Ekonomiako irakaslea naiz, Euskal Herriko Unibertsitateko Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatean. Hegoa Institutuak egiten dituen ikerketetan hartzen dut parte. Horrez gain, masterretan irakasten dut, adibidez, hauetan: Globalizazioa eta Garapena; Ikasketa Feministak eta Generokoak, eta Ekonomia Soziala eta Solidarioa. UPV/EHUko Berdintasuneko zuzendari ohia naiz.

SARRERA

Irakasgai honetan, aurrera egin nahi dugu generoko ikuspegiaren eta tokiko giza garapenaren (TGG) arteko harremana ezartzen, eta sakon ikertu nahi ditugu ikuspegi feminista barne hartzen duen TGGk izan ditzakeen ahalmenak. Ekonomia feminista da abiaburutzat hartu dugun oinarri teoriko nagusia, teoria horrek eraiki nahi duen ekonomiak emakumeen eta gizonen errealitate desberdinak kontuan hartu eta aztertu nahi dituelako (Carrasco, 1999), eta erantzuna eman nahi dielako haien beharrezaneiei eta intereseei. Ildo horretan, benetan ezarri nahi ditu emakumeen eskubide ekonomikoak, sozialak eta politikoak, demokrazia ekonomikoa eta justizia soziala bultzatzeko.

Ageriko kontuak direla ematen badu ere, abiaburu gisa ditugun oinarrietako batzuk azaldu nahi ditugu:

- Lehenik eta behin, bat egiten dugu gaitasunen ikuspegiaren proposamen teorikoekin. Gure ustez, pertsonen gaitasunak eta pertsonen bizitza oso-betea izateko dituzten egiazko aukerak dira garapenerako erreferentziarik nabarmenenak, ez baitira soilik balioetsi behar jendarte osoak dituen diru-baliabideak.

- Bigarrenik, bat egiten dugu kolektiboen gaitasunek ematen duten bultzadarekin, ezinbestekoak direlako norbanakoek dituzten gaitasunak osatzeko.

- Eta hirugarrenik, gure iritziz, ezinezkoa da egiazko tokiko giza garapena lortzea, prozesu hori eraikitzean, emakumeen parte-hartze aktiboa eta haien generoko interesak eta aldarrikapenak aintzakotzat hartzen ez badira. Feminismoak izan behar du giza garapenaren oinarriak finkatzeko erreferentzia, eta oinarri horiek botereak birbanatzea eta eraldatzea izan behar dute helburu.

HELBURUAK

Irakasgai honek funtsezko gakoak eman nahi ditu tokiko giza garapenaren ikuspegia begirada feministatik ulertzeko. Gure iritziz, ezinbestekoa da begirada hori kontuan izatea

egungo munduan nagusi diren bidegabekeriak eta desberdintasunak gainditu nahi dituzten ikuspegi guztietan. Ekonomia feminista da abiaburutzat hartu dugun oinarri teorikoa.

EDUKIAK

Edukia lau ikasgaitan egituratu dugu, eta gai bakoitzarekin batera irakurgaiak jarri ditugu, batzuk oinarrizkoak eta nahitaezkoak, eta beste batzuk osagarriak.

1. Gaia. Gai honek bi atal ditu. Lehenengo atalean, irakasgaien barrena maiz azalduko diren termino batzuk argituko ditugu. Hortaz, genero kontzeptua bera eta interseksionalitatea definitzeaz gain, oinarrizko kontzeptu batzuk landuko ditugu, emakumeen eta gizonen bizitzan dauden errealitate konplexuak aztertzekeo tresna gisa erabiltzeko egokiak direlako (emakumeen izaera eta egoera; beharizan praktikoak eta interes estrategikoak; ahalduntzeko prozesuak eta birbanatzeko eta onartzeko politikak).

Bigarren atalean, ekonomia feministaren ekarpen batzuk jasoko ditugu, hain zuzen, ekonomia feministaren eta tokiko giza garapena edo gaitasunen ikuspegia eraikitzekeo prozesuen arteko gurutzaketaz hausnartzeko egokienak diren horiek. Bereziki nabarmenduko ditugu merkataritzakoak ez diren arloen onarpena eta balioespena, generoko desberdintasunetikiko kezka, eta jendartea eraldatzearen aldeko apustua.

2. Gaia. Gai honetan bi kontu aztertuko ditugu. Lehenik, labur azalduko ditugu generoko zuzentasunaren arloan garapena landu duten joera teoriko nagusietako bi: *Emakumea garapenean* eta *Generoa eta garapena*. Bigarrenik, gaitasunen teoria hartuko dugu ardatz gisa, eta pertsonen bizitza-kalitaterako oinarrizkoak diren alderdiak hautatuko ditugu. Horrez gain, gaitasunen ikuspegiaren eta ekonomia feministaren artean dauden loturak azalduko ditugu.

3. Gaia. Gai honetan, labur azalduko ditugu generoko zuzentasunaren bidez tokiko giza garapena eraikitzekeo egin diren ekarpen teorikorik interesgarrienak. Lehenik, ekofeminismoa landuko dugu. Aski interesgarria da, emakumeen mendekotasun eta bazterkeriako arazoak harremanetan jartzen baititu nagusi den kultura kapitalista eta patriarkalak naturarekiko duen mespretxuarekin.

Hausnarketa ekofeministaren ondoren, gai honen bigarren atalean, feminista postkolonialen edo mugako feministen funtsezko gogoeta batzuk bilduko ditugu, forma eta bizipen aldetik oso ugariak eta aberasgarriak baitira mundua interpretatzeko. Bizitzaren baldintza material eta sinbolikoei buruz egiten duten analisia beren errealitatean oinarritzen da, eta aukera ematen digu haiengana era kritikoan hurbiltzeko. Generoko harremanak eta jendarte-maila, etnia eta sexu-hautuko harremanak gurutzatzen dituzte, haiek txertatuta dauden mendekotasun-sistemak egituratzen dituzten oinarrizko beste ardatz batzuen artean.

Hirugarrenik, Amerikako azterketa instituzionalak landuko ditugu. Ekonomia feministak dituen ekonomia kontzeptu bera eta botere-harreman berberak dituzte azterketa horiek,

baina aberastu egiten dituzte, denboran barrena jendartea egituratzen duten balioak, arauak eta errutinak eraikitzeke eta bilakatzeko kontzeptuez egiten dituzten hausnarketekin.

4. Gaia. Azken gai honetan, azterketa labur bat egingo dugu ongizatearen –oro har– eta gaitasun nagusien –bereziki– adierazle egokiak izateko beharraz. Horrez gain, adierazleak diseinatzean izan diren aurrerapen batzuk aurkeztuko ditugu, generoko desberdintasunak barne hartzen dituztelako.

IRAKASGAIAREN PROGRAMA

1. Gaia: Oinarrizko kontzeptuak eta ekonomia feministaren gakoak

- 1.1. Oinarrizko kontzeptuak
- 1.2. Ekonomia feministaren gakoak
 - A. Bizitzaren iraunkortasuna
 - B. Desberdintasunak
 - C. Eraldaketa soziala eta politika publikoak

2. Gaia: Ekonomia feminista eta tokiko giza garapena: elkartze-guneak

- 2.1. Emakumeen eta gizonen arteko harremanak garapenari buruzko pentsamenduan
- 2.2. Gaitasunen ikuspegia generoko zuzentasunetik

3. Gaia: Ekarpen teoriko interesgarriak TGGrentzat: ekofeminismoa, postkolonialismo feminista eta instituzionalismo erradikala

- 3.1. Ekofeminismoa
- 3.2. Postkolonialismo feminista
- 3.3. Instituzionalismo erradikala

4. Gaia: Gaitasunak ebaluatzeko adierazleen beharra

LAN METODOA

Irakasgai hau oinarrizko dokumentuan bermatzen da. Nahitaezko irakurgaiez gain, irakurgai osagarriak, kontsultakoak eta nork bere borondatez irakurtzeko gaiak ere proposatzen ditugu. Gure ustez, horren bidez, hobeto ulertu ahal izango dira ikastaroaren modulu guztiak, eta, moduluen bitartez aurrera egingo dugu generoko ikuspegia duen tokiko giza garapenaren proposamenaren eta haren ezaugarrien azalpenarekin.

Hona hemen lan-proposamena:

1. Moduluaren sarrerako bideoa ikustea.
2. Irakasgaiak dituen gai guztiak irakurtzea.
3. Nahitaez irakurri beharreko dokumentuak irakurtzea.
4. Gai bakoitzean ariketa gisa proposatzen ditugun bi ariketetarik bat egitea. Argudiatzen saiatuko gara, gaietako testuak eta hautatu dugun irakurketaren hausnarketa oinarritzat hartuta.

Ariketak

1. Gaia

1.a. Egin irakurgai honen iruzkin idatzia. AWID (2004): “Interseccionalidad: una herramienta para la justicia de género y la justicia económica”. Género y Derechos. www.awid.org/esl/content/.../file/intersectionality_sp.pdf

1.b. Ekonomia feministaren eztabaidetan, azken hamarkadetan izan den funtsezko kontzeptuetako bat zaintzen etika izan da. Zein da “zaintzak” kontzeptuari buruz sortzen ari garen definizioa? Aldarrikatzen dugun prozesu eraldatzailean, zein da “zaintzek” betetzen duten zeregina? Zein eginkizun ematen diegu estatuari eta merkatuari prozesu horretan? Zein dira eskubideen eta gaitasunen ikuspegiarekin dauden gurutzaketak eta loturak? Egin idatzizko hausnarketa gai horiei buruz.

2. Gaia

2.a. Egin irakurgai honen iruzkin idatzia. Larrañaga, Mertxe eta Yolanda Jubeto (2012): “Reflexiones en torno a Género y Desarrollo”, Hegoaren informazioko baliabideen buletina, http://publ.hegoa.efaber.net/assets/pdfs/274/Boletin_Hegoa_n%C2%BA30.pdf?1334735787

2.b. Ekonomia feministan, oraingo sistemaren hautabide diren proposamenen funtsezko abiaburuetako batek bizitzaren iraunkortasuna babestea hartzen du ardatz gisa. Zein neurritaraino aberasten dute elkar gaitasunen ikuspegiak eta bizitzaren iraunkortasuna azterketa ekonomikoaren erdian jartzen duen proposamenak? Egin idatzizko hausnarketa gai horri buruz.

3. Gaia

3.a. Egin irakurgai honetako kapitulu bati buruzko iruzkin idatzia. Suárez Navaz, Liliana eta Aída Hernández Castillo (arg.): *Descolonizando el Feminismo. Teorías y Prácticas desde los Márgenes*. Cátedra argitaletxea. <http://www.lrmcidii.org/wp-content/uploads/2012/04/descolonizando.pdf>

3.b. Egin bideo honi buruzko iruzkin idatzia: “Propuestas ecofeministas para transitar a un mundo justo y sostenible (Yayo Herrero) (1:09:26)”. Hemen eskuragarri: <http://www.youtube.com/watch?v=Eq-jyslgnls>

4. Gaia

4.a. UNDPren giza garapenari buruzko azken txostenean argitaratutako adierazleetan oinarrituta, egin generoko desberdintasunei buruzko iruzkin idatzia. Txostena hemen dago eskuragarri: www.undp.org

4.b. Aztertu “Bizitza hobe baterako indizea” ELGAren web-orrian (<http://www.oecdbetterlifeindex.org/es/>), eta hautatu pertsonen bizitzaren kalitaterako garrantzi gehien duten alderdiak eta adierazleak zein diren, argudioak emanaz.

NAHITAEZKO IRAKURGAIAK

1. Gaian

- AWID (2004): “Interseccionalidad: una herramienta para la justicia de género y la justicia económica”. Género y Derechos. www.awid.org/esl/content/.../file/intersectionality_sp.pdf

- Carrasco, Cristina (2011): “La economía del cuidado: planteamiento actual y desafíos pendientes”, *Revista de Economía crítica*, 11. zk., http://revistaeconomiacritica.org/sites/default/files/revistas/n11/REC11_9_intervenciones_CristinaCarrasco.pdf

- Jubeto, Yolanda (2011): “Debates sobre desarrollo y bienestar desde la economía feminista”, *Pueblos* aldizkaria, 49. zk., <http://www.revistapueblos.org/old/spip.php?article2309>

- Pérez de Armiño (zuz.) (2000): *Diccionario de Acción Humanitaria y Cooperación al Desarrollo*, Bilbo: Hegoa. Sarrera hauek bakarrik:

- Empoderamiento. 220-224 or. <http://www.dicc.hegoa.ehu.es/listar/mostrar/86>
- Género. 268-272 or. <http://www.dicc.hegoa.ehu.es/listar/mostrar/108>
- Intereses y necesidades de género. 276-277 or. <http://www.dicc.hegoa.ehu.es/listar/mostrar/112>
- Marcos para el análisis de género. 277-283 or. <http://www.dicc.hegoa.ehu.es/listar/mostrar/113>
- Políticas de género. 283-284 or. <http://www.dicc.hegoa.ehu.es/listar/mostrar/114>
- Roles de género. 284-286 or. <http://www.dicc.hegoa.ehu.es/listar/mostrar/115>

- Vargas, Virginia (2012): "El concepto de género se ha banalizado".
<http://www.pagina12.com.ar/diario/sociedad/3-198276-2012-07-10.html>

2. Gaian

- Larrañaga, Mertxe eta Yolanda Jubeto (2012): "Reflexiones en torno a Género y Desarrollo", Hegoaren informazioko baliabideen buletina,
http://publ.hegoa.efaber.net/assets/pdfs/274/Boletin_Hegoa_n%C2%BA30.pdf?1334735787

- Larrañaga, Mertxe eta Yolanda Jubeto (2011): "Tokiko giza garapena eta genero berdintasuna", Hegoaren Lan-koadernoak, 56. zk.,
<http://publ.hegoa.efaber.net/publications/265>

- Larrañaga, Mertxe eta Yolanda Jubeto (2013): "El desarrollo humano desde la equidad de género", hemen: Román, B. eta de Castro G. (koord.) (2013): Cambio social y cooperación en el siglo XXI. El reto de la equidad dentro de los límites económicos (2. lib.)
<http://www.intervida.org/media/pdf/7-%20Larranaga-Jubeto.pdf>

3. Gaian

- Chávez, Patricia et al. (2011): *Despatriarcalizar para descolonizar la gestión pública*. Bolivia: Vicepresidencia del Estado Plurinacional de Bolivia. Dirección de Participación ciudadana. http://www.vicepresidencia.gob.bo/IMG/pdf/depatriarcalizacion_rev.pdf

- Jubeto, Yolanda eta Metxe Larrañaga (2011): "Aportes del institucionalismo radical al impulso de la equidad de género en procesos de transformación social", Larrañaga, Mertxe eta Yolanda Jubeto (arg.) (2011): *La cooperación y el desarrollo humano local. Retos desde la equidad de género y la participación social*. Bilbo: Hegoa.
http://publ.hegoa.efaber.net/assets/pdfs/270/La_cooperacion_y_el_desarrollo_humano_local.pdf?1318945581

- López Castellano, Fernando (arg.) (2013): *Medio ambiente y desarrollo. Miradas feministas desde ambos hemisferios*. Granada: Universidad de Granada eta Fundación IPADE. <http://www.alianzaporlasolidaridad.org/wp-content/uploads/LIBRO-MIRADAS-FEMINISTAS.pdf>

- Shiva, Vandana (2006): *Manifiesto para una democracia de la tierra: justicia, sostenibilidad y paz*. Paidós argitaletxea.
<http://books.google.es/books?id=9Wi1w9Hti5YC&printsec=frontcover&hl=es#v=onepage&q&f=false>

- Suárez Navaz, Liliana eta Aída Hernández Castillo (arg.): *Descolonizando el Feminismo. Teorías y Prácticas desde los Márgenes*. Cátedra argitaletxea.
<http://www.lrmcidii.org/wp-content/uploads/2012/04/descolonizando.pdf>

4. Gaian

- Carrasco, C. et al. (2007): Estadístiques sota sospita. Proposta de nous indicadors des de l'experiència femenina. Bartzelona: Institut Català de les Dones.
<http://www20.gencat.cat/portal/site/icdones/menuitem.8995df589d09a9b439a72641b0c0e1a0/?vgnextoid=a5a92a9f53063210VgnVCM1000008d0c1e0aRCRD&vgnextchannel=a5a92a9f53063210VgnVCM1000008d0c1e0aRCRD&vgnextfmt=default&contentid=70227d16cd063210VgnVCM1000008d0c1e0aRCRD>

- ELGA: Índice para una Vida Mejor: <http://www.oecdbetterlifeindex.org/es/>

IRAKURGAI OSAGARRIAK

1. Gaian

- Carrasco, Cristina, Borderías, Cristina eta Teresa Torns (arg.) (2011): El trabajo de cuidados. Historia, teoría y políticas. Madril: Libros de la Catarata.
https://www.fuhem.es/media/cdv/file/biblioteca/Economia_critica/El_trabajo_de_cuidados_C._Carrasco_C._Borderias_T._Torns.pdf

- Fraser, Nancy (1996): "Redistribución y reconocimiento: hacia una visión integrada de justicia de género", Revista Internacional de Filosofía Política, 8. zk.,
http://www.mujeresenred.net/IMG/pdf/Nancy_Fraser.pdf

- Harcourt, Wendy (2007): Las mujeres y las políticas del lugar. Programa Universitario de Estudios de Género. UNAM.

- Orozco, Amaia (2007): Cadenas globales de Cuidado. Serie género, migración y desarrollo. Documento 2. INSTRAW.
http://www.mueveteporlaigualdad.org/publicaciones/cadenasglobalesdecuidado_orozco.pdf

- Orozco, Amaia (2010): Cadenas Globales de cuidado ¿Qué derechos para un régimen global de cuidados justo? INSTRAW.
http://www.mueveteporlaigualdad.org/publicaciones/derechosparaunregimenglobaldecuidadosjusto_2010.pdf

2. Gaian

- Dubois, Alfonso: El debate sobre el enfoque de las capacidades: las capacidades colectivas. Araucaria, Revista Iberoamericana de Filosofía, Política y Humanidades [online] 2008, 10 <http://www.redalyc.org/pdf/282/28212043003.pdf>

- Pérez de Armiño (zuz.) (2000): Diccionario de Acción Humanitaria y Cooperación al Desarrollo, Bilbo: Hegoa. Sarrera hau bakarrik:

Enfoques de políticas hacia las mujeres. 370-372 or.
<http://www.dicc.hegoa.ehu.es/listar/mostrar/146>

- Zabala, Idoie (2010): "Estrategias alternativas en los debates sobre Género y Desarrollo", Revista de Economía crítica, 9. zk.,
http://revistaeconomiacritica.org/sites/default/files/revistas/n9/4_Idoie_Zabala.pdf

3. Gaian

- ACSUR-Las Segovias (2010): Mujeres y medio ambiente: Admiraciones e interrogantes, ACSUR-Madril.
http://biblioteca2012.hegoa.efaber.net/system/ebooks/18553/original/Mujeres_y_Medio_Ambiente.pdf?1311756772

- Escobar, Arturo (2007): La invención del tercer mundo. Construcción y deconstrucción del desarrollo. Venezuela: Fundación Editorial el perro y la rana.
http://www.elperroylarana.gob.ve/phocadownload/alfredomaneiro/colonialidad_modernidad_descolonialidad/lainvenciondeltercermundo.pdf

- Veblen, Thorstein ([1899] 1947): "Pecuniary Emulation" The Theory of the Leisure Class, Mitchell, Wesley C. (arg.) What Veblen taught. New York. The Viking press. 3. arg.
<http://ebooks.adelaide.edu.au/v/veblen/thorstein/leisure/chapter2.html>

4. Gaian

- UNDP (2010): Informe sobre Desarrollo Humano 2010.
http://hdr.undp.org/sites/default/files/hdr_2010_es_complete_reprint.pdf (5. kapitulua osorik eskainita dago desberdintasunaren eta pobreziaren neurketak egiteko).

- Social Watch (2012): El índice de equidad de género 2012.
<http://www.socialwatch.org/es/node/14380>

BIDEOAK / DOKUMENTALAK

Aukera batzuk:

- La economía feminista: imprescindible para una sociedad más justa y solidaria (Yolanda Jubeto) (1:26:05). Hemen dago eskuragarri:

<http://www.youtube.com/watch?v=7l1KuCclVYI>

- La economía feminista (Cristina Carrasco) (9:49). Hemen eskuragarri:

<http://www.youtube.com/watch?v=HylglzHxehU>

- Fundamentos de la economía feminista (Amaia P. Orozco) (8:50). Hemen eskuragarri:

<http://www.youtube.com/watch?v=nmJXOfQp8t8>

- Economía feminista 1 (Red Alforja) (7:12). Hemen eskuragarri: <http://www.youtube.com/watch?v=bHPYH1hY670>
- La práctica de la economía feminista 2 (Red Alforja) (5:37). Hemen eskuragarri: http://www.youtube.com/watch?v=nEG_KIJdVrQ
- Creating Capabilities: The Human Development Approach (Martha Nussbaum) (1:02:44). Hemen eskuragarri: <http://www.youtube.com/watch?v=sYfFGDhbHUK>
- Creating Capabilities (Martha Nussbaum) (9:41). Hemen eskuragarri: <http://www.youtube.com/watch?v=AoD-cjduM40>
- Propuestas ecofeministas para transitar a un mundo justo y sostenible (Yayo Herrero) (1:09:26). Hemen eskuragarri: <http://www.youtube.com/watch?v=Eq-jyslgnls>
- Sex, lies and global economics. National Film Board of Canada (Marilyn Waring) (94:10). Hemen eskuragarri: <http://www.minessence.net/presentations/WhosCounting.aspx>